

5. GAIA: URTEKO KONTUEN AUDITORIA-TXOSTENA

ZEREGINA

4. Gaian, azken ariketa osoan, KA2,S.A. enpresaren 202xko Urteko Kontuak ikuskatzeko izendatu zaituzte. Bere jarduera hondartzarako aulki eta etzaulkien salerosketa da.

ESKATZEN DA: KA2 enpresatik lortutako ebidentziak kontuan hartuta eta Memoriako ondoko informazioa, esanguratsua kontsideratzen dena, Auditoretza-Txostena idatzi.

MEMORIA:

2. oharra: URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi fidela

202xko ekitaldiko Urteko Kontuak, honekin batera doazenak, Administrazio Organoak formulatu ditu.

Sozietateak bere egoera finantzarioak landu ditu, funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren mende, kontuan hartuta COVID-19aren egungo egoera eta egoera horrek ekonomian oro har eduki ditzakeen ondorioak, eta ez dago arriskurik jardunean jarraitzeko, memoria honetako 22. oharrean zehazten den moduan.

22. oharra: ONDORENGO GERTAERAK

202x+1ko martxoaren 14an, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko martxoaren 14an emandako 463/2020 Errege Dekretua argitaratu da. Ondoren, 202x+1ko martxoaren 18an, COVID-19aren ondorio ekonomiko eta sozialari aurre egiteko urgentziatzeko ezohiko neurriak ezartzeko martxoaren 17an emandako 8/2020 Errege Lege-Dekretua argitaratu da, hasteko hilabete bateko indarraldiarekin eta enpresa jarduerari eragiten dion hainbat xedapenekin.

Bai Errege Dekretu batek bai besteak azken egunetan koronabirusak edo COVID-19ak maila globalean zein munduan sortu duen osasun larrialdiaren ondorioz eman dira. Gaur egun eta arau bien aplikatzearen eta betetzearen ondorioz, pertsonen etxeko konfinamendua, mugimenduen askatasuna eta beste hainbat egoera dekretatu dira.

Alarma egoera dekretatu zenetik, egoera horrek eragin nabarmena eduki du Konpainiaren emaitzetan. Konfinamendu arau zorrotzek gure bezeroen eskaria %52raino murriztu dute 202x+1ko apirilean. Ondoren, eskaera leheneratzen joan da arinki, eta ez dakigu seguru noiz bueltatu ahal izango den normaltasunera.

Eskaeraren jaitsiera zakar hori arintzeko, sozietateak bere produktuen eskaintza doitu du, beti urruntze sozialari lotuta emandako agindu eta gomendioak beteta. Honela online salmenta abian jarri da.

Krisiaren beraren bilakaerak eta gure sektorean aplikatu beharreko arauetan egon diren aldaketek zaildu egiten dute COVID-19aren krisiak 202x+1ko kontuetan eduki dezakeen inpaktua kuantifikatzea; halere, kontuan izanda egungo egoera eta egindako aurreikuspenak, kalkulatzen dugu 20.000 euro inguruko inpaktua izan daitekeela. 202x+2ean, inpaktua nabarmen txikiagoa litzateke, eta espero da ekitaldi horren amaieran krisi aurreko egoerara bueltatzea.

KA2, S.A. SALDOAK	KUTXA	BEZEROAK	IZAKINAK
ENPRESAREN SALDOA	1.798	36.750	117.300
Diruzaintza arloko doikuntzak (1),(2)	+90,91+54		
Bezeroen arloko doikuntzak (3),(5)		-1,694 -4.300	+1.220
Izakinen arloko doikuntzak (7),(8),(9)		-847	-910 +3.600
AUDITOREAREN SALDOA	1.942,91	29.909,00	121.210,00